

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

186/2025 Foru Agindua, martxoaren 27koa. Bitarteko izendapena egitea Wednesday Estanislau Silva Lopesi, Arratzua-Ubarrundiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko

Arratzua-Ubarrundiako Udaleko alkateak, 2025eko martxoaren 24an, Wednesday Estanislau Silva Lopesi bitarteko izendapena egiteko eskatu zuen, Arratzua-Ubarrundiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanposturako, 2025eko apirilaren 15etik aurrerako ondorioekin.

Egun, titularra ez da lanpostu hori benetan betetzen ari, eta horrela jarraituko du laster erretiroa hartzen duenera arte, eta jada ez da aurreikusten lanpostu horretara itzuliko denik.

Espedientean jasotzen denez, 2024ko martxoaren 7ko ALHAOn (27. zk.) iragarki bat argitaratu zen, lanpostu hori estatuturako gaikuntza duen funtzionario batek behin-behineko izendapenaren, zerbitzu eginkizunen edo metaketaren bidez betetzeari buruzkoa, baina ez zen eskaerarik aurkeztu, udal ziurtagiaren bidez egiaztatzen denaren arabera.

Legutioko Udalak badu lan poltsa bat indarrean, duela gutxi oposizio-lehiaketa bidez izapidetua, berdintasun, merezimendu, gaitasun, publikotasun eta bizkortasun printzipioak betez, udal horretako idazkari kontuhartzaile lanpostua betetzeko, baina irekita dago, halaber, beste toki erakunde batzuek erabil dezaten, eta bertako kideek berariaz baimena eman dute beren datuak haiei emateko.

Arratzua-Ubarrundiako Udalak lan poltsa hori eskatu du, eta proposatu du puntuazio ordenaren arabera lehen hautagaia, Wednesday Estanislau Silva Lopes, izendatzea, 2025eko apirilaren 15etik aurrerako ondorioekin. Hark izendapen proposamena onartu du, eta epearen barruan aurkeztu ditu sartzeko baldintzak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak, bai eta izendapena egin aurreko gainerako agiriak ere.

Bat etorri 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikulua xedatutakoarekin:

1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak estatuturako gaikuntza duen toki administraziooko funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki erakundeek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, A1 azpitaldera sartzeko eskatutako tituluduna.

Edonola ere, kontuan izan behar da zer xedatzen duen Estatuturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 54. artikuluan:

“Lanpostua behin betiko bete, titularra itzuli kapitulu honetan jasotako kasuetan, edo behin-behineko izendapena eginez gero, zerbitzu eginkizunetan edo zeregin pilaketan, lanpostua aldi baterako funtzionario edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu, automatikoki kargugabetuko da lanpostu hori betetzen ari zena”

Bat etorri Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.4 artikuluan xedatutakoarekin, bitarteko funtzionarioaren izendapenetik hiru urte igarotakoan amaitu egingo da bitarteko harremana.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Wednesday Estanislau Silva Lopesen izendapena egitea, 2025eko apirilaren 15etik aurrerako ondorioekin, Arratzua-Ubarrundiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua bitarteko gisa betetzeko, hura legez bete arte, estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Arratzua-Ubarrundiako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 27a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA